



## ARAUDIA

1. Bastoiak erabil daitezke, horrela izan ezkerro hasieratik amaieraraino eramatea derrigorrezkoa delarik.
2. Aurreratzeko egoeran dagoen korrikalariari pasatsen uztea derrigorrezkoa da.
3. Ibilbidea markatutako eremutik burutzea derrigorrezkoa da.
4. Lasterketa burutzen den ingurua ez errespetatzeak, lasterkariarentzako zigorra suposatuko luke.
5. Lasterketan zehar laguntza (gurutze gorria, laguntza taldea...) jasotzen ez dabilen zaurituren baten egoerari buruz antolakuntzako partaideei abisu ez emateak zigorra suposatuko luke.
6. Frogen irteera bateratua izango da .
7. Pasagune kontrolak
  - AUNTZALDAPA (3,3 km): 50 minutu
  - HELMUGA: ordu 1 eta 45 minutu
8. Partehartzea irekia da, lasterkari orok bere sailkapenari dagozkion puntuak lortuko dituelarik.
9. Partehartzaileak honako maila edo kategoritan banatuta egongo dira:
  - GIZONEZKO absolutua
  - EMAKUMEZKO absolutua
10. Kronometraje txartel eta dortsal banaketa lasterketa egun berean burutuko dira, froga hasi baino ordu t'erdi lehenago.
11. Partehartzaile bakoitzak, arropa arinen bat utzi ahal izango du antolakuntzaren esku, ondoren helmugara iristean erabili ahal izateko. Arropak lasterketa hasi baino ordubete lehenagorarte jasoko dira.
12. Sari banaketako ordutegi edota protokoloa ez errespetatzeak, lasterkariaren sari galtzea suposatuko luke.
13. Arautegi hau ez betetzeak denbora zigorra edo kanporaketa suposatuko luke.
14. Araudi honetan agertzen ez diren gauzetan, Lasterketako Batzordearen erabakiak hartuko dira kontutan.
- 15. EME-ren KB-etako araudia bete beharko da froga honetan.**